



ZESTOAKO UDALA

AKTA

Tokiko Gobernu Batzarrak 2020ko urriaren 13an buruturiko ohiko saioari dagokiona.

Zestoako udaletxean, bi mila eta hogeiko urriaren hamahiruan, Mikel Arregi Urrutia Alkate jauna mahaiburu delarik, Ruben Alberdi Uranga, Nerea Odriozola Larrañaga eta Garikoitz Mendizabal Etxeberria korporakideak bildu dira.

Idazkari lanetan, Ander Cestona Unanue jauna, Udaleko Idazkari-Kontuhartzailea aritzen da.

1.- INSTANTZIAK.

1.1) E.S.L.k, aurkeztutako proiektuaren udal izapidetzea eta dagokion jarduera eta obrarako Udal Lizentzia eskatzen du.

Gaia sakonago aztertu eta hurrengo batzordean hitz egingo da. Ingurumen teknikariak txosten zirriborro bat landuko du eta horren arabera deituko zaie Txindurri-iturrikoei bilera egiteko.

1.2) J.L.E.A. jaunak, Arroa Beheko Artzubia aldea ibardiaren berreskurapen eta hobetze lanen inguruko kamioi erregistroa aurkezten du, 2020ko iraileko hilabeteari dagokiona

Arroa Beheko Artzubia aldeko ibarbidearen berreskuratze eta hobetze lanen 2020ko iraileko hilabeteari dagokion kamioi erregistroa jaso izanaren adierazpena egingo da.

1.3) J.J.O.O.k, Akuako Txapei baserriko fatxadan zaharberritze lanak egiteko, aurrekontuan aurreikusten den leiho berriaren xehetasunak aurkezten ditu. Baimena ematea erabaki da, akordioan zehazten diren baldintzen arabera.

1.4) J.A.I.M.k, orain dela aste bi egindako eskakizunari informazioa gehitzen dio, 864 zenbakidun finkaren bordarako sarrera bide egokia egiteko baimena izateko.

Aizarnako 5. poligonoko 15. partzelako sarrera arteko bidea egiteko baimena ematen da.

1.5) Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Sailak, Zestoako Herri Ikastetxean (Bidezarra 5) igogailua jartzeko obra baimen eskaera egiten du, eskaerari proiektu teknikoa (Euskal Herriko Arkitektoen Elkargo Ofiziala – Gipuzkoako Ordezkaritzak 2019/02/05 bisatua) eta aurrekontua gaineratuz. Baimena ematea erabaki da, akordioan zehazten diren baldintzen arabera.

1.6) N.B.C.k, I.S.L.ren izenean, "Iraoberri" ikasgela eta zerbitzuak izeneko behin-behineko eraikuntza gauzatzeko proiektua aurkezten du.

Aurkeztutako proiektua bisatu gabe dagoenez, proiektu bisatua aurkeztu arte ezin da udal baimenik eman.

1.7) E.N. jaunak, Arroabeko Beti-Alai etxearen bizigarritasun ziurtagiria eskatzen du.

Udaleko idazkariak emandako ziurtagiria bidaliko zaio.

1.8) Arroabeko lokal baten erabilera zaintza.

Ontzat ematen da. Zehaztasunak eskatuko dira, lokalaren erabilera egutegi, baldintza etab.en inguruan.

1.9) B.A.L.k, Gurutzeaga kalea 7 eraikineko igogailua zero kotara jaisteko obretako udal baimena eskatzen du. Baimena ematea erabaki da, akordioan zehazten diren baldintzen arabera.

1.10) U.U.A.k, A.T.T. enpresak nabea handitzeko obraren baimen eskaera sartu duela adierazten du. Ontzat ematen da.

1.11) J.L.A.I.k, Zubimusu baserriko lehen solairuko sabai, zutoin eta egurrezko habeetako igeltsu zaharren estaldura garbitzeko obretako udal baimena eskatu du. Baimena ematea erabaki da, akordioan zehazten diren baldintzen arabera.

1.12) A.V.Z.k, baimena eskatu du Iraetabidea 15-16 helbidean duen etxebizitza ixteko.

Udalak baimena eman ahal izateko, eskatzaileak Ura Ur Agentziaren baimena aurkeztu beharko du udal honetan.

2.- PERTSONALEKO GAIAK. - Ez dago pertsonaleko gairik.

3.- AZKEN ORDUKO GAIAK.

3.1) Iraetako parean ibaian dagoen presak ateratzen duen zarataren inguruko kexak.

Alkateak adierazi du kexak daudela eta zerbait egin beharko dela.

Ura Ur Agentziara arazoaren berri eman aurretik, Gipuzkoako Ur Kontsortzioarekin bilera bat egingo da arazoa aztertzeko.

3.2) Harrobia.

Batzordeburuak adierazi du, harrobiko arduradunekin azken aldiz bildu zirenean, proposamen tekniko bat egitekotan gelditu zirela eta kasurik egiten ez dutenez, azken epe bat eman eta erantzuten ez badute, neurri gogorragoak hartu beharko direla aipatu da.

4.- BATZORDE INFORMATIBOETAKO AKTAK.

- 2020ko irailaren 3an Ingurumena eta Landa Garapeneko Batzordeak eginiko bileraren akta onartzen da.
- 2020ko irailaren 30ean Kultura Batzordeak eginiko bileraren akta onartzen da.
- 2020ko uztailaren 21ean Sozio-Ekonomia eta Herritarren Parte Hartzea Batzordeak eginiko bileraren akta onartzen da.
- 2020ko irailaren 15ean Euskara, Hezkuntza eta Komunikazio Batzordeak eginiko bileraren akta onartzen da.
- 2020ko urriaren 7an Ogasun Saileko Batzordeak eginiko bileraren akta onartzen da.

5.- ALKATETZA EBAZPENAK.

- 260 zk: I.I.S.L enpresak, Arroa eheko A1.3.3. partzelan baimenik gabeko obra egitearen ondorioz espedientea irekitzea.

- 261 zk: COVID-19ak familia zaintza inguruan eragindako egoerak arintzeko laguntza lerroa onartzea.
- 262 zk: Gauetan kalean izaten den zarataren kexari erantzuna.
- 263 zk: Portale tabernako terrazako zarataren kexa.
- 264 zk: A. enpresa lekuz aldatzeko eskaera.
- 265 zk: Portale tabernako terrazako zarataren kexa.
- 266 zk: Portale tabernako terrazako zarataren kexa.
- 267 zk, Arroabeko Akertza baserrian portxea egiteko baimenik ez emateari errekurtsioa jartzen dio.
- 268 zk: Baratze Parkeko 16 zenbakidun baratzea erabiltzeko baimena.
- 269 zk: Baratze Parkeko 15 zenbakidun baratzea erabiltzeko baimena.
- 270 zk: I.I.S.L enpresak, Arroa Beheko A1.3.3. partzelan baimenik gabeko obra egitearen ondorioz zehapen espedientea irekitzea.
- 271 zk: Udal jabetzako bidea edo pista erabilera bereziaren baimena.
- 272 zk: Etxez etxeko 3 laguntzaile oposaketako oinarriak onartzea.
- 273 zk: H.S.L.k Sansinenean duen pabiloiko obra amaiera aurkeztu eta irekiera baimena eskatu du.
- 274 zk, M.L.k Gizarte Zerbitzuetako administrari laguntzailearen oposaketa deialdiari jarritako berraztertze errekurtsioari erantzuna.
- 275 zk: Iraetako Errota industrialdean igerilekuko mantenimendurako materialaren almagaren jarduera.
- 276 zk: Arroabeko Beti-Alai etxeko obren legeztatpena.
- 277 zk: Fati tabernako terrazan bederatzi mahai jartzeko baimena.
- 278 zk: Alarma egoeran Mollergi tabernako terrazan mahai gehiago jartzeko zuen baimena udara amaitu arte luzatzeko eskaera.
- 279 zk: Ehorzketak astegun eta larunbat goizetan bakarrik egiteko erabakia.
- 280 zk: Ezenarrobia 5eko Txotxapaindo etxean bigarren solairuardea egiteko baimena.
- 281 zk: Arroabean GI-631 errepideko P.K.0+200 puntuan, oinezkoen segurtasun baldintzak hobetzeko lanen kontratazioa S.E.S.L. enpresari esleitzea.
- 282 zk: Dirubiltzaileak proposatutako itzulketak egitea.
- 283 zk: Santa Engrazia bidea 11ko Arana baserriko teilatua konpontzeko obretako udal baimena.
- 284 zk: Udal jabetzako bidea edo pista erabilera bereziaren baimena.
- 285 zk: Apategi baserriak neurgailu barik uraren kontsumoa egin izanagatik zehapen espediente hastea.
- 286 zk: 2020ko bigarren hiruhilabeteko Ur eta Zabor Tasaren erroldak onartu eta ordaintzeko epea ezartzea.
- 287 zk: AB.R.1/1 REZOLA-ARROA BEHEAko egungo parametro urbanistikoaren aldaketa, Hirigintza Hitzarmena haserako onespina.
- 288 zk: I.O. enpresari zehapen espedientea irekitzea Sansinenea industriagunean ur kontsumoa neurgailu barik egitearren.
- 289 zk: A.K. enpresari, COVID-19aren ondorioz sortutako kalte-galderen gastuak ordaintzearen zenbateko proposamena egitea.
- 290 zk: Zestoako Udalak A.A.T.ri, hitzarmen bidez, egiten dien zuzeneko ordainketaren zati bat ordaintzeko agindua ematen duena.
- 291 zk: Eszedentzia eskaeraren onarpena.
- 292 zk: Arriskutsua izan daitekeen animalia izateko lizentzia.

- 293 zk: Narkis Balentziaga kalea 12 2B etxebizitzako komunean bañera kendu eta dutxa jartzeko obretako udal baimena.
- 294 zk: Lasako behientzako ukuiluan botatako materialaren dokumentazioa ontzat ematea.
- 295 zk: AB.S.I.4 Sansinenea Errekako A1-3-3 Partzelako Xehetasun Azterlana tramitera onartzeko ebazpena.
- 296 zk: AB.S.I.4 Sansinenea Errekako A1-3-3 Partzelako Xehetasun Azterlana haserako onespina.
- 297 zk: 2020urteko Jabari publikoaren okupazio Tasa, errolda onartu eta ordaintzeko epea ezartzea.
- 298 zk: Ontzat ematea Aizarnan arrautzak jartzeko oiloentzako obra amaiera eta jardueraren aurretiazko komunikazioa.
- 299 zk: Santa Engrazian duen bordari altuera emateko eskaeraren erantzuna.
- 300 zk: Lasako Zelaitxikieta baserriko bidean utzi diren lurren inguruko eskaeraren erantzuna.
- 301 zk: Lasako Zelaitxikieta baserriko bidean utzi diren lurren inguruko eskaeraren erantzuna.
- 302 zk: A.L.S.A.ren obra baimena txakolin upategia egiteko Mardubidean.
- 303 zk: Arroagoiko haur parkearen inguruko idatziari erantzuna.
- 304 zk: Aizarnako Zabale baserriko lurren segregazio baimena.
- 305 zk: Guardia zarra baserriaren mendebaldean kokaturik dagoen partzela urbanizagarria segregatzeko baimena.
- 306 zk: O.S.L. enpresari irekitako zehapen espedientearen ebazpena.
- 307 zk: A. enpresaren deposituaren ondoko lur-sailean obrak egiteko eskaeraren erantzuna.
- 308 zk: E.A.k ustiatzen duen solarearen zedula urbanistikoa.
- 309 zk: Lizarraitz auzuneko lurren zesioaren inguruko proposamenari erantzuna.
- 310 zk: Aizarnako 12-05 partzelan eginiko bordaren lanak ikuskatzeko bixita egin ondorengo egiaztapena.
- 311 zk: A.T.T.S.A. enpresaren obrak geldiarazteko agindua.
- 312 zk: A.S.L. enpresaren kontratua luzatzearen erabakia.
- 313 zk: Bidezarra 2 eraikinaren EITaren inguruko idatziari erantzuna.
- 314 zk: M.A. garbitzaileari kontratua %100era igotzea.
- 315 zk: C.A. andereak sartutako erreklamazioaren ordainketa baimentzea.

6.- ELKARRERANTZUN OFIZIALAK.

Ez dago elkarrerantzun ofizialik.

7.- ERREGU ETA GALDERAK.

Ez dago erregu edo galderarik.

Eta gai gehiago ez dagoenez, bukatutzat ematen da saioa eguerdiko 14:20ak direnean, nik neuk, Idazkariak, ziurtatzen dudalarik.

Ander Cestona Unanue

Idazkaria,

O.e

Alkateak,